



# ETXEALDITIK EUSKARALDIRA





# ETXEALDITIK EUSKARALDIRA

## ZER EGINGO DUGU?

---

Elkar ikustea, besarkatzea, ukitzea ia ezinezkoa zaigun honetan, inoiz baino ageriago gelditu zaigu elkarren beharra daukagula: elkarrekin komunikatzeko beharra, hitz egiteko beharra. Eta horren isla da, ziurrenik, inoiz baino gehiago hitz egiten ari garela elkarrekin, bai zuzenean etxean ditugunekin, eta baita teknologiaren bitartez, lagun, ezagun eta ezezagunekin ere.

Komunikatzeko, hitz egiteko, elkarrekin aritzeko behar horren oinarrian, **hizkuntza** dago. Eta horri lotuta dator Euskaraldiaren koordinaziotik luzatu nahi dizuegun proposamena. Hizketaldi horietan guztietan erabiltzen dugun hizkuntzaren gainean hausnarketa egitera bideratutako proposamena, hain zuzen ere. Hau da, etxealdian erabiltzen ditugun hizkuntza-ohiturak zeintzuk diren eta ohitura horien zergatiari erreparatzea da proposamen honen xede nagusia.

Behin hori eginda, eta noiz-norekin-nola aritzen garen argi dugunean, egunerokotasunean ohitura horiei astindu bat emateko daukagun zenbait aukera zabalduko dizkiegu herritarrei, ondoren aukera horiek bere egitera eta proposamen ezberdinak aurrera eramatera animatuz.

Proposamenaren oinarria, beraz, guztiontzako zabalik dagoen gonbidapena izango da: euskara **gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan** erabiltzeko gonbidapena!

## EZAUGARRIAK

“Etxealditik Euskaraldira” proposamenaren ezaugarriak hauek dira:

- Iraupen mugatua izango du.
- Euskaraldia prestatzeko lagungarria izatea da asmo nagusia.
- Hizkuntz ohituren inguruko hausnarketa bultzatzea du xede.
- Egingarria, ez itogarria eta parte hartzeko aukerak zabaltzen dituena izango da.



## ZERTARAKO EGINGO DUGU?

---

Proposamenaren izaerari buruz esandakoak kontuan hartuta, ekimen honen bidez honako helburuak lortu nahi ditugu:

- Hizkuntza-ohiturak euskararen alde aldatzeko hausnarketa piztu, praktikatu eta ohitura berriak finkatzea.
- Euskaraldiaren eta hizkuntza-ohituren aldaketaren inguruko pedagogia soziala egitea.
- Etxean eta etxetik ditugun harremanetan euskararen erabilera sustatzea.

Etxealdiak aukera aproposa ematen digu helburu hauek lortzeko:

- Etxean egonda, eguneroko harremanak mugatuagoak dira eta ariketa gehiago zentratzeko aukera ematen digu.
- Etxeko kideekin dugun konfiantza giroa gune babestua izan daiteke ohiturak aldatzen hasteko. Gero, udazkenean, prestatuago egongo gara eremu ezezagunagoei heltzeko.
- Geldialdi honetan hausnarketarako tarte hartzeko aukera izan dezakegu, erritmo pausatuagoan.

## NOLA EGINGO DUGU?

---

Etxealdian gaudela probestuta, etxeokekin eta etxetik ditugun hartu-emanetako hizkuntza-ohituren inguruan hausnartzea eta ohiturak aldatzeko urratsak emateko helburua duten hainbat proposamen egingo ditugu .

Ekimenaren berri emateko, sare sozialak zein komunikabideak baliatuko ditugu. Behin Etxealditik Euskaraldira ekimena martxan jartzen denean, berriz proposamen zehatzak sare sozialen bidez zabalduko ditugu (Euskaraldiko *Facebook*, *Instagram* eta *twitter* kontuen bidez zabalduko dira), eta horiek batzordeetako sare sozialen bidez zabaltzea da eskaera zuzena (era berean, mezuak zabaltzean, norbanakoei euren sareetatik zabaltzeko eskaera egitea proposatzen dugu).

Bost fase izango ditu ekimenak, bakoitza bere baliabide eta mezu zehatzekin:



|                           | DATA           | ZER  | BALIABIDEAK  |
|---------------------------|----------------|--|--|
| <b>Aurre-kanpaina</b>     | Apirilak 18-20 | Ekimena badatorrela adierazi   | Animazioa  |
| <b>Ekimenaren hasiera</b> | Apirilak 20    | Proposamena gizarteratu: Jendeari azaldu eta ulertarazi zer den egin nahi duguna | Kartela eta azalpen bideoa   |
| <b>Hausnarketa fasea</b>  | Apirilak 21-23 | Hausnarketa sustatzea / bultzatzea   | Pilula: mintzagrama eta balkoietan puntua (edozein koloretako borobil bat                    |
| <b>Proposamenen fasea</b> | Apirilak 24-30 | Hizkuntza-ohiturak aldatzeko/mantentzeko aukerak zabaldu                         | Ohikoak diren egoeretan egingarriak diren proposamenak euskarri/formatu ezberdinetan zabaldu |
| <b>Ekimenaren amaiera</b> | Maiatzak 3     | Ekimenari borobiltasuna emateko ekintza  | Parte-hartzaileek sortutako zerbaiten bidez, komunitateari ikusgarritasuna eman.             |

## FASE NAGUSIEN GAINEKO AZALPENA

### 1. Aurre-kanpaina

- Ekimena hasi aurretik, moskeo kanpaina moduko bat egingo da, zertara gatozen azaldu eta proposamenaren berri emateko.

### 2. Ekimenaren hasiera

- Ekimena gizarteratzea eta jendeari zer egitera goazen ondo azaltzea da fase honen helburua.
- Horretarako, bi baliabide izango ditugu: kartela eta azalpen bideoa.
- Mezuak argia eta erakargarria izan behar duenez, nahasgarriak izan daitezkeen terminoak ekidingo dira.
- Kirolarekin paralelismoak eginez azaleratuko genuke mezua (entrenamendua eta partida, prestatu gero jokatzeko...)



### GIZARTERATZEKO MEZUA (nondik norakoak)

Bizi dugun egoera, etxealdi egoera, Euskaraldirako entrenamendu gisa baliatzea da proposamenaren asmo nagusia, eta hortik dator proposamenaren leloa ere:

**Etxealditik Euskaraldira!**

Etxealdia beraz, beroketa ariketak egiteko eta *jokaldiak* entseatzeko baliatuko dugu, entrenamenduetan egiten den bezalaxe. Gero, azaroaren 20tik abenduaren 4ra jokatu dugun partidara sasoi betean heltzeko, eta partida hori konfiantzaz eta segurtasun handiagorekin jokatu ahal izateko.

Etxealdian prestatu eta Euskaraldian jokatu!

Etzetik Euskaraldira ekimenarekin bat egiten dutenei balkoian/leihoan ikusgarri den puntu bat jartzeko eskatuko diegu (edo whatsapp irudi bezala jartzeko aukera ere egongo da), publikoki erakusteko ekimenean parte hartzera doazela (azken ekitaldiarekin lotuta egongo da puntu hori).

### 3. Hausnarketa fasea

- Proposamenaren hasieran, hausnarketari garrantzia ematea da helburua, hots, hizkuntza ohiturak aztertzeari.
- Tresna bat eskainiko dugu egunerokoan ditugun harremanak irudikatu, zein hizkuntza erabiltzen dugun zehaztu eta zer aldatu nahiko genukeen aztertzeko. Etxealdian eguneroko harremanak etxeakoekin ditugunak eta etzetik telefono edo bideo-dei bidez egiten ditugunak izango dira.
- Hausnarketa egiteak “bestelako erritmoa” eskatzen duenez, bi egun utziko ditugu bakoitzak bere hausnarketa egin, etxeakoekin hitz egin eta datozen egunetan lortu nahi duena irudikatzen hasteko.

### 4. Proposamen fasea

- Hizkuntza ohiturak aldatzeko baliagarriak izan daitezkeen praktikak proposatuko ditugu, ekimenean parte hartzen ari diren herritarrei ideiak eta baliabideak emateko.
- Egunerokotasuneko egoerei lotutako proposamenak izango dira, etxealdian egin ahal izateko modukoak. Egoerak gora-behera, agerian utzi nahi dugu beti dugula aukera hizkuntza-ohiturak eraldatzeko (whatsapp taldeetan euskaraz egitea, euskaraz afaltzea...).



- Zazpi eguneko epean, egunean proposamen bat zabalduko dugu.
- Proposamenen ezaugarriak:
  1. Pilula moduan zabalduko ditugu.
  2. Zenbakituta joango dira (herritarrek ordena jakiteko eta gehiago datozela adierazteko).
  3. Itogarria ez izateko, herritarren esku utziko dugu denak egitea; bakar bat hartu eta aste osoan errepikatzea; gaurko, bihar egitea... Beraien aukera izango da proposamen horiek noiz eta nola gauzatu.
  4. Batzuk orokorrak izango dira eta pare bat data edo hitzordu zehatzetara lotuko ditugu, EH osoan denok batera egiteko.
- Feedback eskaera: Proposamen bakoitzarekin egiten dutena komunitatearekin partekatzerara animatuko ditugu herritarrak eta horretarako bideak zeintzuk izango diren azalduko diegu.

## **5. Amaiera**

- Maiatzaren 3an ekintza bateratu bat egitea proposatuko diegu ekimenean parte hartu duten herritar guztiei.
- Azken egun horretarako sormena erabili eta zerbait sortzeko eskatuko dugu (oraindik ez dugu zehaztu zer izango den).
- Bi helburu nagusi izango ditu ariketa honek:
  1. Parte hartu dugun herritar guztiok osatzen dugun komunitatea bistaratzea.
  2. Ekimenean egindako hausnarketak eta praktikek izan duten eraginaren balorazioa egitea.
- Maiatzak 1-2 izango ditugu, beraz, ekintzarako elementua sortzeko.



## **NORK EGINGO DU?**

---

Ekimenaren zabalkundean eta komunikazioan hainbat eragilek hartuko dugu parte eta hainbat bide erabiliko ditugu. **Euskaraldia antolatzen gabiltzan nazio zein herri mailako eragileok batera zabaldutako ekimen masiboa izatea da gure helburua.**

### **KOORDINAZIO OROKORRA**

- Ekimenaren fase bakoitzerako euskarriak sortu, edukia + diseinua (animazioak, bideoak, pilulak...).
- Euskaraldiaren sare orokorretatik euskarriak zabaltzea (Instagram, Facebook, Telegram, Twitter, ...).
- Lehenengo edizioan ahobizi eta belarriprest izan ziren herritarrei ekimenean parte hartzeko mezua zabaltzea.
- Pentsarekin eta komunikabideekin harremana.
- Herri batzordeei ekimena zabaltzeko beharrezko euskarriak ematea.
- Ekimenaren koordinazio orokorra.

### **HERRI BATZORDEAK**

- Koordinazio orokorretik zabaltzen diren proposamenei “herriaren ukitua” ematea, hau da, herriko Euskaraldiaren dinamikara moldatzea (aukerazkoa).
- Herri-batzordearen sare sozialetatik ekimena zabaltzea (facebook, twitter, instagram, whatsapp taldeak, telegram, ...).

## **SARE SOZIALAK ERABILTZEKO GIDATXOA**

---

*Etxealditik Euskaraldira!* sare sozialetan zabalduko dugu herritar guztiei ekimenean parte hartzeko proposamena helarazteko. Horrez gain, ekimenak sare sozialetan presentzia izateko hainbat tresna erabiliko ditugu.

Garai hau oso aproposa izan daiteke herriko Euskaraldiaren sare sozial kontuak sortzeko, martxan jartzeko edota elikatzeke. Koordinazio orokorretik hurrengo sareak erabiliko dira:

- Instagram /Twitter/Facebook
- Telegram kanalak
- Herri batzordeekin osatutako Whatsappeko difusio taldeak



Sare sozialetan hainbat norabidetan mugituko dira edukiak:

- Koordinazio orokorretik zabalduko diren euskarri orokorrak.
- Herrietatik zabalduko diren euskarriak.
- Herritarrek zabalduko dituzten argazkiak, hausnarketak, ...

Honi guztiari batasuna emateko, ondorengo irizpideak hartuko ditugu kontutan:

- Herriko batzordeak **Euskaraldiarentzako sortutako sare sozialetako kontuak** erabiltzea lehenetsi behar luke. Ondoren, batzordeko eragile ezberdinen kontuetatik zabaldu daitezke (eskolak, udala, ...).
- Egiten ditugun argitalpenetan, Euskaraldiaren kontu orokorren aipamena egingo dugu, herrietatik eta herritarrek egindako argitalpenak zuzenean jaso koordinaziokook jaso eta zabaldu ahal izateko. Horretarako, publikazio guztietan **@euskaraldia** gehituko dugu.
- Proposamenarekin zerikusia duten argitalpen guztiak jarraitu ahal izateko, argitalpen guztietan **#etxealditikeuskaraldira** gehituko dugu.
- Herrietako argitalpenak ere berezitu nahi bazenituzte, bi aukera dituzue:
  - Herriko Euskaraldiaren sare sozialetako kontuei aipamena egitea, @ erabilita. (@euskaraldiaarralde, adibidez).
  - Herriaren izena aipatzea # erabilita (#arralde, adibidez).